



ETXEBIZITZAKO
BEHATOKIA
OBSERVATORIO
VASCO DE LA
VIVIENDA

**EAEko ETXEBIZITZAREN BEHAR ETA ESKARIARI
BURUZKO INKESTA 2009-2010.
Emitzen txostena**




2012ko uztaila



AURKIBIDEA

1. SARRERA	7
2. LEHEN ETXEBIZITZA ESKURATZEKO BEHARRA	8
2.1. Etxebizitza eskuratzeko beharraren eta eskariaren kuantifikazioa.....	8
2.2. Beharra duen taldearen ezaugarriak	10
2.2.1. Ezaugarri soziodemografikoak.....	10
2.2.2. Etxebizitza eskuratzeko beharraren arrazoiak.....	12
2.2.3. Maila subjektiboa eta eskaera-epeak.....	13
2.2.4. Behar diren etxebizitzaren ezaugarriak.....	17
2.3. Etxebizitza eskuratzeko beharra duten pertsonen finantza-gaitasuna	19
2.3.1. Sarrera-mailak	19
2.3.2. Hileko ordainketa-ahalmena	20
2.3.3. Ordain daitekeen gehienezko prezioa	22
2.3.4. Finantzaketa-formulak	23
2.4. Etxebizitza eskuratzeko beharra duen taldearen karakterizazioa generoaren ikuspegitik	24
2.5. Etxebizitza eskuratzeko beharraren adierazle nagusien laburpena eta ondorioak	30
3. OHIKO ETXEBIZITZA ALDATZEKO BEHARRAK	33
3.1. Etxebizitza aldatzeko beharraren eta eskariaren kuantifikazioa	33
3.2. Etxebizitza aldatzeko beharra duten familien ezaugarriak.....	36
3.2.1. Bizitegi- eta gizarte-ezaugarriak.....	36
3.2.2. Aldatzeko beharraren arrazoiak.....	40
3.2.3. Beharraren maila subjektiboa eta eskaera-epeak.....	41
3.2.4. Behar diren etxebizitzaren ezaugarriak.....	44
3.3. Etxebizitza aldatzeko beharra duten familien finantza-gaitasuna	46
3.3.1. Sarrera-mailak	46
3.3.2. Hileko ordainketa-ahalmena eta gehienez ordain daitekeen prezioa	47
3.3.3. Finantzaketa-formulak	48
3.4. Etxebizitza aldatzeko beharraren adierazle nagusien laburpena eta ondorioak.....	49




TAULEN AURKIBIDEA

2.1. taula	Lehen etxebizitza eskuratzeko beharren eta eskariaren kuantifikazioa, EAE, 2009-2010.....	8
2.2. taula	Etxebizitza eskuratzeko beharraren kuantifikazioa lurralde historikoka, 2009-2010.....	10
2.3. taula	Etxebizitza eskuratzeko beharra duten pertsonen ezaugarri soziodemografikoak, 2009-2010.....	11
2.4. taula	Lehen etxebizitza eskuratzeko beharraren arrazoia, 2009-2010	12
2.5. taula	Etxebizitza eskuratzeko beharraren maila subjektiboa, 2009-2010	13
2.6. taula	Lehen etxebizitza eskuratzeko beharrak irauten duen denbora, 2009-2010.....	14
2.7. taula	Eskuratzeko beharra 2 eta 4 urteren buruan estaltzeko aukera, 2009-2010.....	15
2.8. taula	Etxebizitza eskuratzeko beharra duten pertsonen behar dituzten etxebizitzaren ezaugarriak, 2009-2010	17
2.9. taula	Etxebizitza eskuratzeko beharra duten pertsonen diru-sarreraren maila, 2009-2010.....	19
2.10. taula	Etorkizuneko etxebizitzaren erosketan parte hartuko duen pertsona kopurua, 2009-2010.....	19
2.11. taula	Etxebizitza eskuratzeko beharra duten pertsonen aitortutako hileko ordainketa-ahalmena, 2009-2010.....	20
2.12. taula	Etxebizitza eskuratzeko beharra duten pertsonen gehienez ordain dezaketan prezioa, 2009-2010.....	22
2.13. taula	Etxebizitza eskuratzeko beharra duten pertsonen aurreikusitako finantzaketa-formulak, 2009-2010.....	24
2.14. taula	Etxebizitza eskuratzeko beharra duten pertsonen ezaugarri soziodemografikoak sexuaren arabera, 2009-2010.....	26
2.15. taula	Etxebizitza eskuratzeko beharra duten pertsonen finantza-ahalmena sexuaren arabera, 2009-2010.....	27
2.16. taula	Lehen etxebizitza eskuratzeko beharraren arrazoia sexuaren aldagaiaren arabera, 2009-2010	27
2.17. taula	Lehen etxebizitza eskuratzeko beharrak irauten duen denbora sexuaren aldagaiaren arabera, 2009-2010.....	28
2.18. taula	Eskuratzeko beharra 2 eta 4 urteren buruan estaltzeko aukera sexuaren arabera, 2009-2010.....	29
2.19. taula	Etxebizitza eskuratzeko beharra duten pertsonen behar dituzten etxebizitzaren ezaugarriak sexuaren arabera, 2009-2010	29
2.20. taula	Etxebizitza eskuratzeko beharra duten pertsonen ezaugarri nagusien bilakaera, 2005-2010	32
3.1. taula	Etxebizitza aldatzeko beharren eta eskariaren kuantifikazioa, EAE 2009-2010.....	33
3.2. taula	Etxebizitza aldatzeko beharraren kuantifikazioa lurralde historikoka, 2009-2010.....	35
3.3. taula	Etxebizitza aldatzeko beharra duten familien ezaugarri sozioekonomikoak, 2009-2010.....	36
3.4. taula	Etxebizitza aldatzeko beharra duten familien bizitegi-ezaugarriak, 2009-2010.....	38
3.5. taula	Etxebizitza aldatzeko beharraren arrazoia, 2009-2010.....	40
3.6. taula	Etxebizitza aldatzeko beharraren maila subjektiboa, 2009-2010.....	41
3.7. taula	Etxebizitza aldatzeko beharrak irauten duen denbora, 2009-2010	42
3.8. taula	Etxebizitza aldatzeko beharra duten pertsonen behar dituzten etxebizitzaren ezaugarriak, 2009-2010	45




3.9. taula	Etxebizitza aldatzeko beharra duten familien diru-sarreraren maila, 2009-2010.....	46
3.10. taula	Etxebizitza aldatzeko beharra duten familiek aurreikusitako finantzaketa-formulak, 2009-2010.....	48
3.11. taula	Etxebizitza aldatzeko beharra duten familien ezaugarri nagusien bilakaera, 2005-2010	50



GRAFIKOEN AURKIBIDEA

2.1. grafikoa	Lehen etxebizitza eskuratzeko beharraren indizearen bilakaera, EAE, 1996-2010.....	9
2.2. grafikoa	Lehen etxebizitza eskuratzeko beharren bilakaera EAEn, 1996-2010.....	9
2.3. grafikoa	Lehen etxebizitza eskuratzeko beharraren indizearen bilakaera lurralde historikoka, 1996-2010	10
2.4. grafikoa	Etxebizitza eskuratzeko beharra duten pertsonen batez besteko adinaren bilakaera, 1997-2010.	11
2.5. grafikoa	Etxebizitza eskuratzeko beharra eragiten duten arrazoi nagusien bilakaera, 1997-2010	13
2.6. grafikoa	Etxebizitza eskuratzeko behar-mailaren bilakaera, 1997-2010	14
2.7. grafikoa	Etxebizitza eskuratzeko beharrak irauten duen denboraren bilakaera, 1997-2010.....	15
2.8. grafikoa	Eskuratzeko beharra 2 eta 4 urteren buruan estaltzeko aukeren bilakaera, 1996-2010	16
2.9. grafikoa	Etxebizitza eskuratzeko beharra edukita etxebizitza baten bila ari diren biztanleen bilakaera, 1997-2010	16
2.10. grafikoa	Etxebizitza eskuratzeko beharra duten pertsonen behar dituzten etxebizitzaren batez besteko azaleraren bilakaera, 1997-2010.....	17
2.11. grafikoa	Etorkizuneko etxebizitzaren edukitza-erregimen gisa alokairua aukeratu duten pertsonen bilakaera (lehen aukera gisa edo berdin zaiela adierazi dutenak), etxebizitza eskuratzeko beharra duten pertsonen artean, 1997-2010	18
2.12. grafikoa	Etxebizitza eskuratzeko beharra duten biztanleen diru-sarreraren bilakaera, 1997-2010	20
2.13. grafikoa	Etxebizitza eskuratzeko beharra duten pertsonen aitortutako ordainketa-ahalmenaren eta hileko diru-sarrera garbien bilakaera, 1997-2010.....	21
2.14. grafikoa	Etxebizitza eskuratzeko beharra duten pertsonen finantza-ahaleginaren bilakaera, 1997-2010.....	21
2.15. grafikoa	Etxebizitza eskuratzeko beharra duten pertsonentzat prezio maximo onargarriaren bilakaera. 1999-2010.....	23
2.16. grafikoa	Etxebizitza eskuratzeko beharra duten pertsonentzat prezio maximo onargarriaren bilakaera, 1997-2010.....	23
2.17. grafikoa	Etxebizitza eskuratzeko beharra duten pertsonak sexuaren arabera, 2009-2010.....	25
2.18. grafikoa	Etxebizitza eskuratzeko beharraren maila subjektiboa sexuaren arabera, 2009-2010	28
3.1. grafikoa	EAEko etxebizitza aldatzeko beharraren indizearen bilakaera, 1996-2010.....	33
3.2. grafikoa	EAEko etxebizitza aldatzeko beharren bilakaera, 1996-2010.....	34
3.3. grafikoa	Etxebizitza aldatzeko beharren indizeen bilakaera lurralde historikoka 1998-2010.....	35
3.4. grafikoa	Etxebizitza aldatzeko beharra duten familien familiaburuaren batez besteko adina, 1997-2010.....	37
3.5. grafikoa	Etxebizitza aldatzeko beharra duten familien batez besteko tamaina, 1997-2010.....	37
3.6. grafikoa	Etxebizitza aldatzeko beharra duten familien etxebizitzaren batez besteko azaleraren bilakaera, 1997-2010	39
3.7. grafikoa	Etxebizitza aldatzeko beharra duten familien etxebizitzaren batez besteko antzintasunaren bilakaera, 1997-2010	39
3.8. grafikoa	Etxebizitza aldatzeko beharra eduki eta alokairuan bizi diren familien bilakaera, 1997-2010	40



3.9. grafikoa	Etxebizitza aldatzeko beharra eragin duten arrazoi nagusien bilakaera, 2001-2010	41
3.10. grafikoa	Etxebizitza aldatzeko behar-mailaren bilakaera, 1997-2010.....	42
3.11. grafikoa	Etxebizitza aldatzeko beharrak irauten duen denboraren bilakaera, 1997-2010.....	42
3.12. grafikoa	Etxebizitza aldatzeko beharra duten familiak: eskariaren bilakaera lau urteren buruan eta bi urteren buruan, 1998-2010.....	43
3.13. grafikoa	Etxebizitza aldatzeko beharra edukita etxebizitza baten bila ari diren biztanleen bilakaera, 1998-2010	44
3.14. grafikoa	Etxebizitza aldatzeko beharra duten familiek nahi duten batez besteko azaleraren bilakaera, 1997-2010	45
3.15. grafikoa	Alokairuko etxebizitza batera (alokairua + bat ala bestea) aldatzeko beharraren bilakaera etxebizitza aldatzeko beharra duten familien artean, 1997-2010	46
3.16. grafikoa	Etxebizitza aldatzeko beharra duten familien diru-sarreraren bilakaera, 1998-2010.....	47
3.17. grafikoa	Etxebizitza aldatzeko beharra duten familien hileko ordainketa-ahalmenaren eta finantza-ahaleginaren bilakaera, 1998-2010	47
3.18. grafikoa	Etxebizitza aldatzeko beharra duten familien gehienezko erosketa-prezioaren bilakaera, 1998-2010	48




1. SARRERA

Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saileko Estatistika Organoak 2009an eta 2010ean egindako Etxebizitzaren Behar eta Eskariari buruzko Inkestako datuak erabili dira txosten hau egiteko.

Txostenean 2009an eta 2010ean lehen etxebizitza eskuratzeko behar indibidualen eta etxebizitza nagusia aldatzeko beharra duten familien adierazle kuantitatiboak eta kualitatiboak aztertzen dira eta arreta berezia jartzen da adierazle horiek ezagutu duten bilakaeraren gainean.

Etxebizitza eskuratzeko beharrekin hasita, 18-44 urte arteko pertsonak direla azpimarratu behar da eta diru-sarrera propioak dituztela eta lehen etxebizitza eskuratzeko beharra dutela. Sarreraren ondoren, etxebizitza eskuratzeko beharraren eta eskariaren kuantifikazioa egiten da 2. kapituluaren. Halaber, taldearen eta beharraren karakterizazioa egiten da eta etxebizitza eskuratzeko beharraren finantza-gaitasuna aztertzen da. Bestalde, lehen etxebizitza eskuratzeko orduan gizonezkoen eta emakumezkoen artean dauden desberdintasun nagusiei buruz hitz egiten da. Azkenik, kapituluarekin amaitzeko, etxebizitza eskuratzeko beharra duten biztanleekin lotuta lortu diren emaitza nagusiak laburbiltzen dira eta 2005-2010 aldirako etxebizitza eskuratzeko beharraren adierazle nagusien bilakaerari buruzko laburpen-taula bat osatu da.

3. kapituluak euskal familiek etxebizitza nagusia aldatzeko duten beharra du ardatz gisa, eta hasteko, beharraren kuantifikazioa eta aurreikusitako epeak aurkezten dira. Ondoren, familien deskribapena, eta familia horiek bizi diren etxebizitzena, egiten da. Halaber, etxebizitza aldatzeko arrazoi nagusia eta beharraren intentsitatea aztertzen dira, bai eta beharrezkoa den etxebizitza mota ere. Bestalde, euskal familiek aldaketa egin ahal izateko duten finantza-gaitasuna aztertzen da. Amaitzeko, 2005-2010 aldirako etxebizitza aldatzeko beharra duten familiei dagokienez lortutako emaitza eta ondorio nagusiak laburbiltzen dira kapituluaren amaieran.



2. LEHEN ETXEBIZITZA ESKURATZEKO BEHARRA

2.1. Etxebizitza eskuratzeko beharren eta eskariaren kuantifikazioa

Eusko Jaurlaritzaren 2010eko Etxebizitzaren Behar eta Eskariari buruzko Inkestak erakusten duenez, euskal familien % 11,7an daude lehen etxebizitza eskuratzeko beharra duten gazteak¹. EAEn 97.800 etxebizitza behar dira 18-44 urteko pertsonen taldeak lehen etxebizitza eskuratzeko duen beharrari erantzuteko.

2.1.1. taula Lehen etxebizitza eskuratzeko beharren eta eskariaren kuantifikazioa, EAE, 2009-2010

	2009		2010	
	Indizea (familien %)	Etxebizitza mota	Indizea (familien %)	Etxebizitza mota
BEHARRA*	13,2	110.677	11,7	97.800
4 URTERA BEGIRAKO ESKARIA**	51,6	57.091	64,7	63.254
2 URTERA BEGIRAKO ESKARIA**	38,1	42.215	36,6	35.843
1 URTERA BEGIRAKO ESKARIA**	20,5	22.648	21,2	20.746


(*) %/familien guztizkoa; (**) %/beharra duten familiak.

Iturria: Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saila, Etxebizitzaren Behar eta Eskariari buruzko Inkesta 2009-2010.

2009tik 2010era behera egin du lehen etxebizitza eskuratzeko beharrak eta % 12ko murrizketa ezagutu du. Denbora-ikuspegi zabalago batetik, 2010eko indizea 2002an eta 2005ean lortutakoen antzeko mailatan kokatu dela azpimarratu behar da.

¹ Familiaren etxetik irten eta independizatu, ezkondu, bikotekidearekin bizi eta abarrerako beste etxebizitza bat behar duten gazteak dira. Etxebizitza eskuratzeko beharren bideragarritasuna ziurtatzeko, baldintza metodologiko gisa ezarri da eragindako pertsonen diru-sarrera propioak edukitzea.

2.1. grafikoa Lehen etxebizitza eskuratzeko beharraren indizearen bilakaera, EAE, 1996-2010




*2009tik aurrera aldatu egin da inkesta egiteko metodologia².

Iturria: Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saila, Etxebizitzaren Behar eta Eskariari buruzko Inkesta 2009-2010.

Etxebizitza eskuratzeko beharrak asetzeko egindako denbora-aurreikuspenaren emaitzei dagokienez, denbora-tarte zabal batean erantzuteko beharrak direla ikus daiteke. Horrela, 2009ko emaitzekin alderatuta, urte baten buruan etxebizitza eskuratzeko beharra murriztu egin den bitartean, areagotu egin da 4 urteren buruan etxebizitza eskuratzeko beharra. Zehazkiago, etxebizitza eskuratzeko beharra duten biztanleen % 21ek uste dute urte baten buruan etxebizitza eskuratuko dutela, % 37k uste dute 2 urte beharko dituztela eta % 65ekoa da portzentajea, epea 4 urtera zabaltzen bada.

2.2. grafikoa Lehen etxebizitza eskuratzeko beharren bilakaera EAEn, 1996-2010



*2009tik aurrera aldatu egin da inkesta egiteko metodologia.

Iturria: Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saila, Etxebizitzaren Behar eta Eskariari buruzko Inkesta 2009-2010.

Lurralde historikoka, 2010ean etxebizitza eskuratzeko beharraren indizeak oso antzekoak izan dira Araban (% 12,3) eta Bizkaian (% 12,1), eta pixka bat baxuagoa da Gipuzkoako indizea (% 10,6). Nahiz eta 2009 eta 2010 artean lehen etxebizitzaren eskariak behera egin duen Bizkaian eta Gipuzkoan, Araban, aitzitik, gora egin du beharrak.

² 2009an aldatu egin zen Etxebizitzaren Behar eta Eskariari buruzko Inkestaren landa-lanaren metodologia: laginaren tamaina zabaldu egin zen eta elkarrizketa personalak egin ziren.




2.2. taula Etxebizitza eskuratzeko beharraren kuantifikazioa lurralde historikoka, 2009-2010

	2009		2010	
	Indizea (familien %)	Etxebizitza mota	Indizea (familien %)	Etxebizitza mota
EAE	13,2	110.677	11,7	97.800
ARABA	9,3	11.476	12,3	15.246
BIZKAIA	14,8	66.418	12,1	54.157
GIPUZKOA	12,2	32.783	10,6	28.397

Iturria: Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saila, Etxebizitzaren Behar eta Eskariari buruzko Inkesta 2009-2010.

Indizeen bilakaerari erreparatzen bazaio ikus daitekeenez, 2010eko emaitzak % 10eko portzentajearen gainetik daude hiru lurraldeetan, eta ratio horiek 2002-2006 aldikoen parekoak dira.

2.3. grafikoa Lehen etxebizitza eskuratzeko beharraren indizearen bilakaera lurralde historikoka, 1996-2010



*2009tik aurrera aldatu egin da inkesta egiteko metodologia.


Iturria: Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saila, Etxebizitzaren Behar eta Eskariari buruzko Inkesta 2009-2010.

2.2. Beharra duen taldearen ezaugarriak

2.2.1. Ezaugarri soziodemografikoak


Lehen etxebizitza eskuratzeko beharra duten biztanleen ezaugarri soziodemografiko garrantzitsuenak adierazi dira atal honetan.

Adin-tarteen araberako banaketari dagokionez, talderik ugaritsuena 25-34 adinekoa dela esan behar da, % 67ko portzentajearekin. % 20k 18-24 urte bitartean dituzte eta gainerako % 14 35 urte eta gehiago dituzten pertsonen taldean sailkatu dira. Azken kasu horretan, bikoiztu egin da proportzioa 2009tik 2010era.



2010ean 28,5 urte dituzte, batez beste, etxebizitza eskuratzeko beharra duten biztanleek, eta batez besteko hori nahiko egonkor mantendu da aztertutako aldi osoan.

2.4. grafikoa Etxebizitza eskuratzeko beharra duten pertsonen batez besteko adinaren bilakaera, 1997-2010.



2.3. taula Etxebizitza eskuratzeko beharra duten pertsonen ezaugarri soziodemografikoak, 2009-2010

EZAUGARRIAK (*)	2009	2010
Beharra duen pertsonaren adina		
18-34 urte	21,7	19,8
25-34 urte	71,4	66,6
35 urte eta gehiago	6,9	13,6
Batez besteko adina (urteak)	27,8	28,5
Sexua		
Emakumezkoa	44,0	44,4
Gizonezkoa	56,0	55,6
Ikasketa-maila		
Ikasketarik ez/Lehen mailako ikasketak	16,7	14,1
Lanbide-heziketako ikasketak	31,3	33,0
Bigarren mailako ikasketak	11,4	11,0
Unibertsitate-ikasketak	40,6	41,9
Lanarekiko erlazioa		
Bere kontura egiten du lan	12,2	7,4
Lanean, finkoa	47,5	49,7
Lanean, aldi baterako	28,5	33,8
Langabezian	6,4	5,9
Beste egoera bat	5,0	3,2
Ed/Ee	0,4	0,0
Eskuratze mota		
Bakarrik	51,0	57,8
Bikotekidearekin	49,0	42,2

(*): Bertikalaren % (beharra duten pertsonen guztizkoarekiko).

Iturria: Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saila, Etxebizitzaren Behar eta Eskariari buruzko Inkesta 2009-2010.

*2009tik aurrera aldatu egin da inkesta egiteko metodologia.

Iturria: Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saila, Etxebizitzaren Behar eta Eskariari buruzko Inkesta 2009-2010.

Sexuaren aldagaiari dagokionez, 2010ean gizonezkoak dira nagusi, berriro ere, etxebizitza eskuratzeko beharra duten pertsonen artean, % 56ko portzentajearekin; emakumezkoak dira, berriz, gainerako % 44.

Ikasketa-mailari dagokionez, etxebizitza eskuratzeko beharra duten pertsonen % 42k unibertsitate-ikasketak dituzte eta % 33k lanbide-heziketako ikasketak. Gero eta altuagoa da unibertsitate-ikasketak edo lanbide-heziketa eduki eta lehen etxebizitza eskuratzeko beharra duten pertsonen proportzioa.

2010eko datuek erakusten duten moduan, % 91 lanean ari dira eta % 6k aitortu dute langabezia daudela. Ez da desberdintasun esanguratsurik ikusten 2009ko datuekin alderatuz.

Amaitzeko, etxebizitza eskuratzeko beharra duten pertsonen % 58k etxebizitza bakarrik eskuratuko dutela adierazi dute eta % 42koa da bikotekidearekin batera eskuratuko duten pertsonen proportzioa. Behera egin du 2009 eta 2010 artean etxebizitza bikotekidearekin batera eskuratuko duten pertsonen proportzioak.

2.2.2. Etxebizitza eskuratzeko beharraren arrazoiak

Etxebizitza eskuratzeko beharra eragiten duten arrazoiei dagokienez, gurasoen etxetik independizatzeko gogoak jarraitzen du arrazoi nagusia izaten. Arrazoi hori adierazi dute beharra duten pertsonen % 73,5ek; % 23k ezkontzea edo bikotekidearekin bizitzea adierazi dute arrazoi gisa.


Bilakaerari erreparaturaz, eta ondorengo grafikoak erakusten duen moduan, gero eta gehiago aipatzen da independizatzeko gogoia eta gero eta handiagoa da ezkontzea edo bikotekidearekin bizitzea adierazten duten pertsonen portzentajearekiko aldea.

2.4. taula Lehen etxebizitza eskuratzeko beharraren arrazoia, 2009-2010


ARRAZOIAK	2009	2010
Ezkontzea-Bikotekidearekin bizitzea	25,2	23,4
Independizatzeta	71,8	73,5
Beste hainbat arrazoi	3,0	3,1
Guztira	100,0	100,0

(*): (*) % bertikala (mota bakoitzeko beharraren gainean).

Iturria: Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saila, Etxebizitzaren Behar eta Eskariari buruzko Inkesta 2009-2010.



2.5. grafikoa Etxebizitza eskuratzeko beharra eragiten duten arrazoi nagusien bilakaera, 1997-2010



*2009tik aurrera aldatu egin da inkesta egiteko metodologia.

Iturria: Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saila, Etxebizitzaren Behar eta Eskariari buruzko Inkesta 2009-2010.

2.2.3. Maila subjektiboa eta eskaera-epeak

Lehen etxebizitza eskuratzeko beharrak hazkunde txikia ezagutu du azken urtean, eta gauza bera gertatu da antzemandako beharraren kasuan. 0-100 eskala batean, etxebizitza eskuratzeko batez besteko behar-maila subjektiboa 67,5 puntura iritsi da 2010ean eta emaitza hori 2009an lortutakoa baino pixka bat baxuagoa da (% 69,7).


2.5. taula Etxebizitza eskuratzeko beharraren maila subjektiboa, 2009-2010

BEHAR MAILA	2009	2010
Handia	36,9	35,2
Nahikoa	41,1	39,3
Bat ere ez	17,2	18,9
Txikia	4,9	6,5
Batez besteko maila (0-100)	69,7	67,5


(*): Bertikalaren % (mota bakoitzeko beharra duten pertsonen gainean).

Iturria: Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saila, Etxebizitzaren Behar eta Eskariari buruzko Inkesta 2009-2010.

Etxebizitza eskuratzeko behar-mailak maiztasunen arabera lortu duen banaketari dagokionez, % 35ek uste dute behar handia dutela eta % 39k behar nahikoa dutela. Bi proportzioak batera hartuta, etxebizitza eskuratzeko beharra duten pertsonen % 74,5era iristen da eta ehuneko hori murrizten ari da, 2007an maximoak erregistratu eta gero.



2.6. grafikoa Etxebizitza eskuratzeko behar-mailaren bilakaera, 1997-2010



*2009tik aurrera aldatu egin da inkesta egiteko metodologia.

Iturria: Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saila, Etxebizitzaren Behar eta Eskariari buruzko Inkesta 2009-2010.

Lehen etxebizitza eskuratzeko beharrak irauten duen denborari dagokionez, 2010ean nahiko segmentatu dagoen talde bat dela baieztatu ahal izan da. Horrela, % 27k aitortu dutenez, 4 urte baino gehiago daramatzate beharrarekin eta % 20k urte bat baino gutxiago daramatela esan dute. Dena den, 1-2 urteko tartean kasu asko multzokatu dira, talde osoaren % 34,5, hain zuzen ere. Gainerako % 19k aitortu dutenez, 2 eta 4 urte daramatzate etxebizitza eskuratzeko beharrarekin.


2.6. taula Lehen etxebizitza eskuratzeko beharrak irauten duen denbora, 2009-2010

Denbora	2009	2010
Urtebete baino gutxiago	13,8	19,9
1-2 urte bitartean	26,1	34,5
1-4 urte bitartean	29,0	18,6
4 urte baino gehiago	31,2	27,0
Guztira	100,0	100,0


(*): Bertikalaren % (beharra duten pertsonen guztizkoarekiko).

Iturria: Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saila, Etxebizitzaren Behar eta Eskariari buruzko Inkesta 2009-2010.

2010ean gora egin du beharra dutela 2 urte baino gutxiago daramatzaten pertsonen proportzioak eta % 54ra iristen da portzentajea etxebizitza eskuratzeko beharra dutenen kasuan.



2.7. grafikoa Etxebizitza eskuratzeko beharrak irauten duen denboraren bilakaera, 1997-2010



*2009tik aurrera aldatu egin da inkesta egiteko metodologia.

Iturria: Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saila, Etxebizitzaren Behar eta Eskariari buruzko Inkesta 2009-2010.

Etorkizunera begira, lehen etxebizitza eskuratzeko beharra duten pertsonen % 37k uste dute 2 urteren buruan beharra asetzeko aukera handiak edo nahikoa dituztela, eta proportzio hori % 65ekoa da, epea 4 urtera zabaltzen bada.


2009ko inkestari helduta, antzeko emaitzak lortu ziren 2 urteren buruan beharra asetzeko aukeren kasuan, baina aurreko urteekin alderatuta, areagotu egin da 4 urteren buruan beharra asetuko dutela uste duten pertsonen proportzioa, 2008ko mailen pareraino iritsi arte.

2.7. taula Eskuratzeko beharra 2 eta 4 urteren buruan estaltzeko aukera, 2009-2010


Denbora	2009	2010
Aukerak 2 urteren buruan		
Aukera handia	12,2	14,4
Aukera dezente	25,9	22,2
Aukera txikia	54,6	46,8
Aukerarik ez	7,2	16,5
Guztira	100,0	100,0
Aukerak 4 urteren buruan		
Aukera handia	12,7	15,2
Aukera dezente	38,9	49,4
Aukera txikia	42,5	28,7
Aukerarik ez	6,0	6,6
Guztira	100,0	100,0

(*): Bertikalaren % (beharra duten pertsonen guztizkoarekiko).

Iturria: Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saila, Etxebizitzaren Behar eta Eskariari buruzko Inkesta 2009-2010.



2.8. grafikoa Eskuratzeko beharra 2 eta 4 urteren buruan estaltzeko aukeren bilakaera, 1996-2010




*2009tik aurrera aldatu egin da inkesta egiteko metodologia.

Iturria: Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saila, Etxebizitzaren Behar eta Eskariari buruzko Inkesta 2009-2010.

4 urteren buruan lehen etxebizitza eskuratzeko dutela uste duten biztanleei dagokienez, inkestak erakusten digu pertsona horien artetik % 46,5 etxebizitzaren bila ari direla, eta proportzio hori azterketaren aldi osoan lortutako batez bestekoa baino pixka bat baxuagoa da (% 51ekoa da 1997-2010 aldiko batez bestekoa).


2.9. grafikoa Etxebizitza eskuratzeko beharra edukita etxebizitza baten bila ari diren biztanleen bilakaera, 1997-2010



*2009tik aurrera aldatu egin da inkesta egiteko metodologia.

**4 urteren buruan etxebizitza eskuratzeko aukerak dituztela uste duten biztanleak.

Iturria: Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saila, Etxebizitzaren Behar eta Eskariari buruzko Inkesta 2009-2010.



2.2.4. Behar diren etxebizitzaren ezaugarriak

Baldintza ekonomiko partikularrek baldintzatu egiten dituzte eskuratuko den etxebizitzaren ezaugarriak, eta horregatik, nahi den etxebizitza mota adierazteko orduan, bakoitzak bere egoera ekonomikoa kontuan hartzeko eskatzen zaie inkestan parte hartzen duten pertsonari.

Etxebizitza berriak eta erabiliak bereiziz, oraingoan ere berdina zaiola erantzun du gehiengo batek: 2010ean % 68ko portzentajea lortu da.

Aukera bat egin duten pertsonen artean etxebizitza berriaren aldeko aukera egiten da gero eta gehiagotan (% 21,5), eta gutxiagotan aukeratzen dira etxebizitza erabiliak (% 9). Bi aukeren kasuan, 2009an baino portzentaje altuagoak lortu dira.

Gazteek eskatzen duten etxebizitzak 67 m² ditu batez beste eta 61-75 m² arteko etxebizitzaren tartea da gehien aipatu dutena (% 34).

Lehen etxebizitza gisa behar den etxebizitzaren tamaina murriztuz joan da denboran eta gaur egungo batez bestekoa (67 m²) aztertu den aldikoa baino txikiagoa da (70 m² 1997-2010 artean).


2.8. taula Etxebizitza eskuratzeko beharra duten pertsonen behar dituzten etxebizitzaren ezaugarriak, 2009-2010

EZAUGARRIAK	2009	2010
Baldintza		
Berria	19,0	21,5
Bigarren eskukoa	6,2	8,6
Berdin da	72,3	68,3
Ed/Ee	2,5	1,5
Azalera erabilgarria		
60 m ² baino gutxiago	12,2	28,8
61-75 m ²	43,4	33,6
76-90 m ²	29,7	26,2
91-120 m ²	7,5	2,8
Ed/Ee	7,1	8,6
Batez besteko azalera (m²)	73,6	67,3
Edukitzea-erregimena		
Jabetza	59,5	51,6
Alokairua	16,4	23,2
Berdin da	24,1	25,2

(*): Bertikalaren % (mota bakoitzeko beharra duten pertsonen gainean).

Iturria: Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saila, Etxebizitzaren Behar eta Eskariari buruzko Inkesta 2009-2010.

2.10. grafikoa Etxebizitza eskuratzeko beharra duten pertsonen behar dituzten etxebizitzaren batez besteko azalaren bilakaera, 1997-2010



*2009tik aurrera aldatu egin da inkesta egiteko metodologia.


Iturria: Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saila, Etxebizitzaren Behar eta Eskariari buruzko Inkesta 2009-2010.



Lehen etxebizitzaren edukitza-erregimenari dagokionez, inkestak erakusten du 18-44 urteko biztanleen erdiak baino gehiagok (% 52k) nahiago dutela jabetza; % 23k alokairua aukeratu dute lehen etxebizitzaren edukitza-erregimen gisa; gainerako % 25ek berdin zaiela esan dute.


Lehen etxebizitza eskuratzeko beharra duten pertsonen % 48 metatzen dira alokairuaren eskaria eta bi aukeren aldekoa batera kontuan hartzen badira, eta proportzioa areagotzen ari da eta aztertutako aldi osoko batez bestekorik altuena erregistratu da.

2.11. grafikoa Etorkizuneko etxebizitzaren edukitza-erregimen gisa alokairua aukeratu duten pertsonen bilakaera (lehen aukera gisa edo berdin zaiela adierazi dutenak), etxebizitza eskuratzeko beharra duten pertsonen artean, 1997-2010



*2009tik aurrera aldatu egin da inkesta egiteko metodologia.

Iturria: Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saila, Etxebizitzaren Behar eta Eskariari buruzko Inkesta 2009-2010.



2.3. Etxebizitza eskuratzeko beharra duten pertsonen finantza-gaitasuna

2.3.1. Sarrera-mailak

2010eko Inkestan etxebizitza eskuratzeko beharra duten biztanleek emandako datuen arabera, etorkizuneko etxebizitzaren finantzaketan parte hartuko duten pertsonen hileko diru-sarrera garbien batura 1.251 eurora iristen da³, eta kopuru hori 2009koa baino baxuagoa da (hileko 1.427 euro), baita 2008koa baino baxuagoa ere (1.603 euro), eta 2004ko batez bestekoaren parean geratu da.

Diru-sarreraren tartean arabera banaketari dagokionez⁴, 2010eko datuek erakusten dute diru-sarrera baxuko pertsonen kopuruak gora egin duela. Zehazki, lehen etxebizitza eskuratu nahi duten gazteen % 25ek 840 eurotik beherako diru-sarrerak edukiko dituzte, eta % 4koa zen portzentajea 2008an.

Diru-sarreretan gora eginez, hileko 841 eta 1.140 euro arteko tartean sartzen da etxebizitza eskuratzeko beharra duten lau pertsonen artetik bat (% 24,5). Bestalde, % 18k aitortu dutenez, 1.141 eta 1.410 euro arteko diru-sarrerak edukiko dituzte hilean eta gainerako % 40k hileko 1.410 eurotik gorakoak.

Etorkizuneko etxebizitzaren erosketan parte hartuko duen pertsona kopuruari dagokionez, 2010ean % 63k aitortu dute pertsona bakar batek edukiko dituela diru-sarrerak, eta proportzio hori aurreko urteetan erregistratutakoa baino dezente altuagoa da (% 54 2009ean).

2.9. taula Etxebizitza eskuratzeko beharra duten pertsonen diru-sarreraren maila, 2009-2010

Hileko sarrera garbiak	2009	2010
840 euro bitartean	17,1	24,9
84-1.140 euro	20,1	24,5
1.141-1.410 euro	19,7	18,3
1.411-1.650 euro	13,7	11,7
1.651-2.160 euro	15,6	13,5
2.160 euro baino gehiago	13,8	7,2
Batez bestekoa (eurotan)	1.427,2	1.251,2

Iturria: Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saila, Etxebizitzaren Behar eta Eskariari buruzko Inkesta 2009-2010.


2.10. taula Etorkizuneko etxebizitzaren erosketan parte hartuko duen pertsona kopurua, 2009-2010

	2009	2010
Etxebizitza eskuratzeko beharra duen pertsona	54,1	62,8
Bikoteko kide bat	6,0	5,1
Bikoteko bi kideak	38,0	31,0
Beste egoera bat	2,0	1,1
Guztira	100,0	100,0

Iturria: Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saila, Etxebizitzaren Behar eta Eskariari buruzko Inkesta 2009-2010.


³ Diru-sarreretan etorkizuneko etxebizitzaren ordainketan lagunduko duten pertsona guztiak barne hartzen dira. Horrez gain, kontuan hartu behar da diru-sarrerak edukitzea baldintza bat dela etxebizitza bat eskuratzeko beharra kontuan hartzeko.

⁴ Maiztasunen banaketatik at utzi da Ed/Ez aukera. 2009an erantzun guztien % 17, 5 dira eta % 13,9 dira, berriz, 2010ean.



Horrenbestez, 2010ean behera egin dute diru-sarrerren mailak eta lehen etxebizitza eskuratzeko beharra duten pertsonen arteko finantzaketa partekatua.

2.12. grafikoa Etxebizitza eskuratzeko beharra duten biztanleen diru-sarrerren bilakaera, 1997-2010



*2009tik aurrera aldatu egin da inkesta egiteko metodologia.

Iturria: Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saila, Etxebizitzaren Behar eta Eskariari buruzko Inkesta 2008.

2.3.2. Hileko ordainketa-ahalmena

Hileko diru-sarrerak behera egin ahala, behera egiten du hileko ordainketa-ahalmenak. Zehazkiago, etxebizitza eskuratzeko beharra duten pertsonen adierazi dutenez, hilean 435 euro ordain ditzakete batez beste etxebizitza baten erosketagatik edo alokairuagatik. Kopuru hori 2009ko batez bestekoaren azpitik dago (470 euro).


2.11. taula Etxebizitza eskuratzeko beharra duten pertsonen aitortutako hileko ordainketa-ahalmena, 2009-2010

Hileko ordainketa ahalmena	2009	2010
180 euro bitartean	4,6	8,2
181-240 euro	7,1	7,8
241-300 euro	17,6	17,5
301-450 euro	22,1	22,5
451-600 euro	26,0	26,4
601-750 euro	10,4	9,7
751-900 euro	7,7	5,0
900 euro baino gehiago	4,5	3,0
Batez bestekoa (euro/hilean)	470,3	435,4


Iturria: Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saila, Etxebizitzaren Behar eta Eskariari buruzko Inkesta 2009-2010.

Maiztasunen banaketari⁵ erreparatzen bazaio, etxebizitza eskuratzeko beharra duten kasuan % 33,5ek aitortu dutenez, hilean 300 eurotik behera ordain ditzakete; % 49k aitortu dute hilean 301 eta 600 euro artean ordain ditzaketela eta % 18k hilean 600 eurotik gora ordain ditzaketela esan dute.

⁵ Maiztasunen banaketatik at utzi da Ed/Ez aukera. 2009an erantzun guztien % 5 dira eta % 7,5 dira, berriz, 2010ean.



2.13. grafikoa Etxebizitza eskuratzeko beharra duten pertsonen aitortutako ordainketa-ahalmenaren eta hileko diru-sarrerak gartien bilakaera, 1997-2010




*2009tik aurrera aldatu egin da inkesta egiteko metodologia.

Iturria: Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saila, Etxebizitzaren Behar eta Eskariari buruzko Inkesta 2009-2010.


Bestalde, ordainketa-ahalmena eta hileko diru-sarreraren maila erlazionatzen badira ikus daitekeenez, etxebizitza eskuratzeko beharra duten gazteek diru-sarreraren % 35 etxebizitza erostera edo alokatzera bideratuko dute, aurreko urteetan lortutako batez bestekoaren parean.

2.14. grafikoa Etxebizitza eskuratzeko beharra duten pertsonen finantza-ahaleginaren bilakaera, 1997-2010



*2009tik aurrera aldatu egin da inkesta egiteko metodologia.

Iturria: Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saila, Etxebizitzaren Behar eta Eskariari buruzko Inkesta 2009-2010.



2.3.3. Ordain daitekeen gehienezko prezioa

2010ean etxebizitza eskuratzeko beharra duten pertsonen gehienez ere ordain dezaketen prezioa 147.221 eurokoa da, 2009an erregistratutako batez bestekoa baino gutxiago.

2010eko maiztasunen banaketak⁶ erakusten du, halaber, prezio baxuagoak ordain ditzaketen pertsonen kopuruak nabarmenki gora egin duela. Zehazkiago, % 27k aitortu dute 96.000 eurotik beherako etxebizitza eskuratu ahal izango luketela eta % 11ren kasuan 96.001 eta 120.000 euro artekoa izango litzateke. 120.001-

2.12. taula Etxebizitza eskuratzeko beharra duten pertsonen gehienez ordain dezaketen prezioa, 2009-2010

Ordain daitekeen gehienezko prezioa	2009	2010
96.000 euro baino gutxiago	19,9	26,7
96.001-120.000 euro	12,2	10,6
120.001-150.000 euro	20,5	17,6
150.001-180.000 euro	21,9	20,1
180.001-240.000 euro	16,7	12,3
240.001-300.000 euro	4,3	8,0
300.000 euro baino gehiago	4,4	4,7
Batez bestekoa (eurotan)	151.813,0	147.220,6


Iturria: Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saila, Etxebizitzaren Behar eta Eskariari buruzko Inkesta 2009-2010.

180.000 euroko tartean kokatu dira eskuratzeko beharra duten pertsonen % 38 eta gainerako % 25ek 180.000 eurotik gorako prezioak ordaindu ditzakete.


Dena den, etxebizitza eskuratzeko beharra duten pertsonen artetik askok ez dakite adierazten zein den gehienez ordain dezaketen prezioa: 2009an % 27 izan ziren eta % 21,5 dira 2010ean.

Denboran atzera egiten bada, etxebizitza eskuratzeko beharra duten gazteek gehienez ere ordain ditzaketen prezioak murriztu egin direla ikus daiteke, eta ondorioz, ugaritu egin dira tarterik baxuenetan sailkatutako kasuak eta atzerakada ezagutu da, 2006 baino lehen erregistratutako kopuruen pareraino.

⁶ Maiztasunen banaketatik at utzi da Ed/Ez aukera. 2009an erantzun guztien % 27, 1 dira eta % 21,5 dira, berriz, 2010ean.



2.15. grafikoa Etxebizitza eskuratzeko beharra duten pertsonentzat prezio maximo onargarriaren bilakaera. 1999-2010




*2009tik aurrera aldatu egin da inkesta egiteko metodologia.

**Banaketan ez dira kontuan hartu Ed/Ee kasuan.

Iturria: Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saila, Etxebizitzaren Behar eta Eskariari buruzko Inkesta 2009-2010.

2.16. grafikoa Etxebizitza eskuratzeko beharra duten pertsonentzat prezio maximo onargarriaren bilakaera, 1997-2010.



*2009tik aurrera aldatu egin da inkesta egiteko metodologia.

Iturria: Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saila, Etxebizitzaren Behar eta Eskariari buruzko Inkesta 2009-2010.

2.3.4. Finantzaketa-formulak

Etxebizitza nagusiaren erosketarako formula posiblei dagokienez, kreditua da gehien erabiltzen dena eta 2010ean etxebizitza eskuratzeko beharra duten pertsonen % 91k horrela baieztatu dute. Proporzio horrek behera egin du azken urtean.



Gazteen ia erdiak aipatu dituzte aurrezki propioak eta familiaren laguntza etorkizuneko etxebizitzaren erosketara finantzatzeko eta azken urteetan nabarmenki egin du behera horrela erantzun duten pertsonen kopuruak.

Kreditu bat eskatzea aurreikusi duten gazteen proportzioa murrizteaz gain, murrizketa ezagutu du 2010ean, halaber, 2009ko datuekin alderatuz, etxebizitzaren prezioaren % 75 baino gehiagoko kreditua eskatuko duten pertsonen kopuruak (% 40,5 eta % 54,5 2009an).

2.13. taula Etxebizitza eskuratzeko beharra duten pertsonen aurreikusitako finantzaketa-formulak, 2009-2010

	2009	2010
Finantzaketa-iturriak (*)		
Kredituak	97,9	90,8
Aurrezki propioak	77,9	45,1
Familiaren laguntza	56,8	46,6
Beste ondare baten salmenta	5,3	1,8
Laguntza publikoak	52,5	29,0
Beste bide bat	31,2	1,7
% kreditua/prezinoa		
% 0 (ez du krediturik eskatu)	2,1	9,1
1%- 25%	0,9	3,3
% 25-% 49	6,1	9,2
% 50-% 74	23,4	21,6
% 75-% 100	54,5	40,5
Ed/Ee	13,0	16,2


(*): % erantzun anitzak

Iturria: Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saila, Etxebizitzaren Behar eta Eskariari buruzko Inkesta 2009-2010.

2.4. Etxebizitza eskuratzeko beharra duen taldearen karakterizazioa generoaren ikuspegitik

Atal honetan lehen etxebizitza eskuratzeko beharra duten gizonezkoen eta emakumezkoen arteko desberdintasunei buruz hitz egiten da eta desberdintasun horiek ezaugarri soziodemografikoen eta beharraren ezaugarrien ikuspegitik aztertu dira. Lehenik eta behin aipatu behar da, 2010ean etxebizitza eskuratzeko beharra zuten pertsonen % 56 gizonezkoak zirela eta % 44 emakumezkoak. Eraitza horiek 2009an lortutakoekin berdinak dira.

2.17. grafikoa Etxebizitza eskuratzeko beharra duten pertsonak sexuaren arabera, 2009-2010



Iturria: Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saila, Etxebizitzaren Behar eta Eskariari buruzko Inkesta 2009-2010.

Ezaugarri soziodemografikoei erreparatuz, 2010eko Inkestak batez besteko adina antzekoa dela erakusten du: 29 urte emakumezkoen kasuan eta 28 urte gizonezkoen artean (etxebizitza eskuratzeko beharra dutenen artean).

Maiztasunen banaketari erreparatuz ikus daitekeenez, 2010ean gehiago dira 24 urte baino gutxiago edukita etxebizitza eskuratzeko beharra duten gizonezkoak (% 22), emakumezkoak baino (% 17); emakumezkoek bolumen altuagoa erregistratu dute, ordea, 35 urte edo gehiago edukita oraindik lehen etxebizitza eskuratu ez duten pertsonen artean (% 16 eta % 11 gizonezkoak).

Prestakuntzari dagokionez, 2010ean etxebizitza eskuratzeko beharra duten emakumezkoen ikasketak mailak gizonezkoena gainditu du: emakumezkoen % 55 unibertsitarioak dira eta % 31,5koa da portzentajea gizonezkoen artean. Gizonezkoen artean emakumezkoen artean baino proportzio altuagoak erregistratu dira lanbide-heziketako ikasketak dituzten pertsonen dagokionez (% 38 eta % 27, hurrenez hurren).

Lan-egoerari dagokionez, 2010ean lan egonkorra dutela adierazi du gehiengo batek, etxebizitza eskuratzeko beharra duten gizonezkoen artean (% 53) eta emakumezkoen artean (% 45). Aldi baterako lana dute, bestalde, emakumezkoen % 38k eta gizonezkoen % 30,5ek. Langabetuen agerpena % 6koa da bi kasuetan.



2.14. taula Etxebizitza eskuratzeko beharra duten pertsonen ezaugarri soziodemografikoak sexuaren arabera, 2009-2010


EZAUGARRIAK (*)	2009		2010	
	Emaku mezkooa	Gizone zkoa	Emaku mezkooa	Gizone zkoa
Beharra duen pertsonaren adina				
18-24 urte	23,8	20,1	17,4	21,7
25-34 urte	71,8	71,1	66,3	66,9
35 urte eta gehiago	4,4	8,8	16,3	11,4
Batez besteko adina (urteak)	27,4	28,1	28,7	28,4
Prestakuntza-maila				
Ikasketarik ez/Lehen maila	12,1	20,3	8,8	18,4
Lanbide-heziketako ikasketak	27,6	34,3	27,3	37,6
Bigarren mailako ikasketak	10,5	12,1	9,2	12,4
Unibertsitate-ikasketak	49,9	33,3	54,8	31,5
Jarduerarekiko erlazioa				
Lanean/bere kontura	7,4	15,9	6,7	7,9
Lanean/kontratu finkoa	44,5	49,8	45,4	53,1
Lanean/aldi baterako kontratua	35,9	22,6	38,0	30,5
Langabezian	4,3	8,1	5,6	6,2
Hainbat (ikaslea eta abar)	6,8	3,5	4,4	2,3
Ed/Ee	1,0	0,0	0,0	0,0

(*): Bertikalaren % (beharra duten pertsonen guztizkoarekiko).

Iturria: Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saila, Etxebizitzaren Behar eta Eskariari buruzko Inkesta 2009-2010.

Inkestan parte hartu duten pertsonen emandako informazioa erabiliz, emakumezkoen diru-sarreraren maila (1.191 euro hilean) gizonezkoena baino baxuagoa da (1.296 euro). Etxebizitza eskuratzeko beharra duten gizonezkoen diru-sarrerak emakumezkoenak baino % 9 altuagoak dira.

Halaber, emakumezkoek etxebizitzaren erosketara hilean bidera dezaketen kantitatea, gizonezkoek adierazitakoa baino baxuagoa da. Zehazki, emakumezkoen hileko ordainketa-ahalmena 419 eurokoa da eta 447,5 eurokoa, berriz, gizonezkoena (emakumezkoena baino % 7 altuagoa). Horrela, bi kasuetan beren diru-sarreraren % 35 erabil ditzakete etxebizitza ordaintzeko. Eta erosketaren gehienezko prezioari dagokionez, 155.604 eurokoa da gizonezkoen artean, hau da, emakumezkoek adierazitako gehienezko prezioa baino % 14 gehiago (136.155 euro).



2.15. taula Etxebizitza eskuratzeko beharra duten pertsonen finantza-ahalmena sexuaren arabera, 2009-2010

	2009		2010	
	Emakum ezkoa	Gizonezkoa	Emakum ezkoa	Gizonezkoa
Batez besteko diru-sarrerak	1.468,4	1.395,6	1.191,2	1.296,3
Hileko batez besteko ordainketa-ahalmena	442,66	491,75	419,0	447,5
Aurreikusitako finantza-ahalegina (diru-sarreraren %)	30,1	35,2	35,2	34,5
Ordain daitekeen batez besteko gehienezko prezioa	144.047,3	158.235,2	136.155,3	155.604,3

(*): Bertikalaren % (beharra duten pertsonen guztizkoarekiko).

Iturria: Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saila, Etxebizitzaren Behar eta Eskariari buruzko Inkesta 2009-2010.

Familiarengandik independizatu eta beren kontura bizitzeko gogoia aipatu dute arrazoi gisa emakumeen gehiengoak (% 74,5) eta gizonezkoen gehiengoak (% 73). Distantzia handira kokatu dira arrazoi gisa bikotekidearekin bizitzea eta ezkontzea aipatu duten emakumezkoen proportzioa (% 23) eta gizonezkoena (% 24).

2.16. taula Lehen etxebizitza eskuratzeko beharraren arrazoia sexuaren aldagaiaren arabera, 2009-2010


ARRAZOIAK*	2009		2010	
	Emaku mezkkoa	Gizonezkoa	Emaku mezkkoa	Gizonezkoa
Ezkontzea-Bikotekidearekin bizitzea	32,7	19,3	23,0	23,8
Familia utzi eta bere kontura bizitzea	62,9	78,9	74,5	72,6
Beste hainbat arrazoi	4,5	1,8	2,5	3,6
Guztira	100,0	100,0	100,0	100,0

(*): Bertikalaren % (beharra duten pertsonen guztizkoarekiko).

Iturria: Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saila, Etxebizitzaren Behar eta Eskariari buruzko Inkesta 2009-2010.

2010eko datuen arabera, ez da desberdintasun esanguratsurik ikusten gizonezkoen eta emakumezkoen artean, etxebizitza-beharraren balorazioa egiteko orduan. Batez besteko behar-maila 67 puntukoa da emakumezkoen artean eta 68 puntukoa da gizonezkoen artean.

2.18. grafikoa Etxebizitza eskuratzeko beharraren maila subjektiboa sexuaren arabera, 2009-2010



*2009tik aurrera aldatu egin da inkesta egiteko metodologia.

Iturria: Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saila, Etxebizitzaren Behar eta Eskariari buruzko Inkesta 2009-2010.

Beharrak irauten duen denborari dagokionez, antzeko erantzunak eman dira, halaber. Emakumezko gazteen % 34k eta gizonezko gazteen % 35ek aitortu dute 1 eta 2 urte artean daramatzatela beharrari erantzun ezinik. Behar berrien agerpena (azken urtean sortutako beharrak) zerbait arinagoa da emakumezkoen artean (% 22), gizonezkoen artean baino (% 18). Aitzitik, gehiago dira lehen etxebizitza eskuratzeko etxebizitza baten bila 4 urte baino gehiago daramatzaten gizonezkoak (% 28), emakumezkoak baino (% 26).


2.17. taula Lehen etxebizitza eskuratzeko beharrak irauten duen denbora sexuaren aldagaiaren arabera, 2009-2010

Denbora	2009		2010	
	Emakumezkoa	Gizonezkoa	Emakumezkoa	Gizonezkoa
Urtebete baino gutxiago	15,2	12,6	22,2	18,1
1-2 urte bitartean	26,8	25,5	33,8	35,0
2-4 urte	30,7	27,7	18,3	18,8
4 urte baino gehiago	27,3	34,2	25,7	28,1
Guztira	100,0	100,0	100,0	100,0

(*): Bertikalaren % (beharra duten pertsonen guztizkoarekiko).

Iturria: Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saila, Etxebizitzaren Behar eta Eskariari buruzko Inkesta 2009-2010.

Etxebizitza eskuratzeko beharra erantzuteko aukerei dagokionez, baikorrago agertu dira emakumezkoak eta % 39k uste dute 2 urteren buruan aukera handiak edo aukera nahikoa dutela etxebizitza eskuratzeko, eta proportzio hori % 69koa da epea 4 urtera zabalitzen bada. Bi kasuetan, portzentaje baxuagoak lortu dira etxebizitza eskuratzeko beharra duten gizonezkoen artean: % 34,5 2 urteren buruan eta % 61 4 urteren buruan.



2.18. taula Eskuratzeko beharra 2 eta 4 urteren buruan estaltzeko aukera sexuaren arabera, 2009-2010

	2009		2010	
	Emaku mezkooa	Gizonezkoa	Emaku mezkooa	Gizonezkoa
Aukerak 2 urteren buruan				
Aukera handia	13,4	11,2	14,3	14,5
Aukera dezente	28,7	23,8	25,0	20,0
Aukera txikia	50,9	57,5	42,2	50,5
Aukerarik ez	6,9	7,4	18,5	15,0
Guztira	100,0	100,0	100,0	100,0
Aukerak 4 urteren buruan				
Aukera handia	13,9	11,8	14,3	16,0
Aukera dezente	42,0	36,4	55,1	44,9
Aukera txikia	38,9	45,3	23,4	33,0
Aukerarik ez	5,1	6,6	7,2	6,1
Guztira	100,0	100,0	100,0	100,0

(*): Bertikalaren % (beharra duten pertsonen guztizkoarekiko).

Iturria: Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saila, Etxebizitzaren Behar eta Eskariari buruzko Inkesta 2009-2010.

Azkenik, Inkestaren bitartez baieztatu denez, antzekoa da bi kasuetan bilatzen ari diren etxebizitzaren tamaina: 2010ean 67 m²-koa da batez bestekoa emakumezkoen artean eta 68 m²-koa, berriz, gizonezkoen artean. Bi kasuetan 61 eta 75 m² artekoa da gehien aipatu den tamaina.

2.19. taula Etxebizitza eskuratzeko beharra duten pertsonen behar dituzten etxebizitzaren ezaugarriak sexuaren arabera, 2009-2010

Denbora	2009		2010	
	Emaku mezkooa	Gizonezkoa	Emaku mezkooa	Gizonezkoa
Azalera erabilgarria				
< 60 m ²	15,7	9,5	28,2	29,2
61-75 m ²	43,9	42,9	34,1	33,3
76-90 m ²	28,4	30,9	25,4	26,9
90 m ² baino gehiago	7,1	7,9	1,9	3,6
Ed/Ee	4,9	8,8	10,5	7,1
Batez besteko azalera (m²)	72,4	74,6	67,0	67,6

(*): Bertikalaren % (beharra duten pertsonen guztizkoarekiko).

Iturria: Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saila, Etxebizitzaren Behar eta Eskariari buruzko Inkesta 2009-2010.


2.5. Etxebizitza eskuratzeko beharraren adierazle nagusien laburpena eta ondorioak

EAEko 2010eko Etxebizitzaren Behar eta Eskariari buruzko Inkestaren arabera, euskal familien % 11,7tan daude lehen etxebizitza eskuratzeko beharra duten gazteak eta 97.800 etxebizitza behar dira behar horri erantzuteko.

2010eko inkestatik emaitza hauek azpimarratu behar dira, EAEn lehen etxebizitza eskuratzeko beharra duten biztanleei dagokienez:

- 2009ko emaitzekin alderatuz, azken urtean behera egin du, kopuru erlatiboetan zein absolutuetan, lehen etxebizitza eskuratzeko beharrak eta 2002-2005 aldian lortutako mailen parean geratu da.
- Etxebizitza eskuratzeko beharrari urte baten buruan erantzuteko aurreikuspenek behera egin dute, gutxi bada ere (22.648 etxebizitza 2009an eta 20.746 2010ean) eta ugaritu egin da 4 urteren buruan etxebizitzaren beharrari erantzutea aurreikusi duten gazteen taldea (57.091 2009an eta 63.254 etxebizitza 2010ean).
- Esparru geografikoka, antzekoak dira lehen etxebizitza eskuratzeko indizearen emaitzak: % 12,3 Araban, % 12,1 Bizkaian eta % 10,6 Gipuzkoan. Hala ere, azken urtean aldatu egin da bilakaera: areagotu egin da etxebizitza eskuratzeko behar kopurua Araban, eta portzentaje baxuagoak erregistratu dira, berriz, Bizkaian eta Gipuzkoan.
- Etxebizitza eskuratzeko beharra duten biztanleen profilari dagokionez, batez besteko adina 28 urtekoa da, gizonezko gehiago dago, gora egin du unibertsitate-ikasketak dituzten pertsonen kopuruak eta etxebizitzak bakarka eskuratzeko aukera gailendu zaio bikotekidearekin egiteko aukerari.
- Aitaren-amaren etxetik independizatzeko gogoia da, oraingoan ere, etxebizitza eskuratzeko beharraren arrazoi nagusia (% 73,5), eta gero eta distantzia handiagora dago ezkontzea edo bikotekidearekin bizitzea.
- Nahiz eta etxebizitza eskuratzeko behar handia edo nahikoa dutela uste duten gazteen proportzioa altua den oraindik (% 74,5), 2007an erregistratutako maximoarekiko murrizketa ezagutu da.
- Etxebizitza eskuratzeko beharra duten pertsonen erdiak baino gehiagok adierazi dute 2 urte baino gutxiago daramatzatela egoera horretan.
- Etxebizitza eskuratzeko beharra duten kasuen % 65ek uste dute aukera handiak edo aukera nahikoa dutela 4 urteren buruan beharrari erantzuteko, eta proportzio hori duela urtebete erregistratutakoa baino altuagoa da. Hala ere, egonkor mantendu da etorkizuneko etxebizitzaren bila aktiboki ari diren pertsonen taldea (% 46,5).
- Behar den etxebizitzaren ezaugarriei dagokienez, eta egoera ekonomikoa kontuan hartuta, emaitzek erakusten digute gazteei berdin zaiela eskuratuko duten etxebizitza berria ala erabilia den, eta tamaina txikiagoko etxebizitzak (67 m² batez beste) behar dituztela. Eta, nahiz eta lehen aukera jabetzako etxebizitza bat edukitzearen aldekoa

- den, gero eta gazte gehiagok aukeratzen dute alokairua (% 48k aipatu dute alokairua edukitza-erregimen gisa, edo berdin zaiela adierazi dute).
- 2010eko inkestan behera egin du etxebizitza eskuratzeko beharra duten pertsonen diru-sarreraren mailak. Horrela, 1.251 eurora iristen da etorkizuneko etxebizitzaren finantzaketan parte hartuko duten pertsonen hileko diru-sarrera garbien maila — 2004an erregistratutako batez bestekoaren antzekoa—, diru-sarrera baxuak dituzten pertsonen kopuruak ezagututako gorakadaren ondorioz.
 - Behera egin du, halaber, etorkizuneko etxebizitza eskuratzeko diru-sarrera bat baino gehiago duten pertsonen ehunekoak (% 31), eta behera egin dute hileko ordainketa-ahalmenak (435 euro batez beste) eta erosketagatik ordain daitekeen gehienezko prezioak (147.221 euro batez beste). Dena den, ez da aldatu etxebizitza eskuratzeko beharra duten pertsonen aurreikusitako finantza-ahalegina (diru-sarreraren % 35 bideratuko litzateke etxebizitzaren erosketa ordaintzera).
 - Nahiz eta kredituak diren erosketarako finantzaketa-iturri garrantzitsuena, behera egin du gazteen artean aurrezki propioak dituzten gazteen ehunekoak, bai eta etorkizuneko etxebizitza finantzatzeko familiaren laguntza dutenenak ere.
 - Amaitzeko, 2010eko Inkestan etxebizitza eskuratzeko beharra duten pertsonen % 56 gizonezkoak dira eta gainerako % 44 emakumezkoak. Antzekoak dira bien profil soziodemografikoa eta beharraren karakterizazioa. Haatik, bien artean antzemandako hainbat desberdintasun aipatuko dira jarraian:
 - Etxebizitza eskuratzeko beharra dutenen artean, 24 urte baino gutxiago dituzten gizonezko gazte gehiago daude eta gehiago dira emakumezkoak 35 urtetik gorako gazteen artean.
 - Emakumezkoek ikasketa-maila altuagoa dute: % 55 dira unibertsitarioak eta portzentaje hori % 31,5ekoa da gizonezkoen artean. Gizonezkoen kasuan, lanbide-heziketako ikasketak dituzten gazteak dira gehiengoa (% 38).
 - Emakumezko gehiagok dute (% 38) aldi baterako lan bat, eta gutxiago dira gizonezkoak (% 30,5).
 - Gizonezkoek diru-sarrera altuagoak eta hileko ordainketa-ahalmen altuagoa dute eta erosketaren kasuan gehienez ere ordain dezaketen prezioa ere altuagoa da. Hala ere, gizonezkoek eta emakumezkoek etxebizitza ordaintzeko egingo duten hileko finantza-ahalmena % 35era iristen da.
 - Emakumezkoak gizonezkoak baino baikorrago agertu dira etxebizitza bat 2-4 urteren buruan eskuratzeko aukerak baloratzeko orduan.




Amaitzeko, 2005-2010 aldian EAEn gazteek etxebizitza eskuratzeko duten beharrari buruzko adierazle kuantitatibo eta deskribatzaile garrantzitsuenen laburpen-taula bat osatu da.

2.20. taula Etxebizitza eskuratzeko beharra duten pertsonen ezaugarri nagusien bilakaera, 2005-2010

	2005	2006	2007	2008	2009	2010
Kuantifikazioa						
Beharraren indizea (familien %)	12,2	11,2	10,1	8,6	13,2	11,7
Beharraren kuantifikazioa (etxebizitza kop.)	90.815	92.788	82.891	74.461	110.677	97.800
Gizarte-ezaugarrien bilakaera						
Batez besteko adina (urteak)	27,5	28,1	29,1	28,7	27,8	28,5
Etxebizitza eskuratzeko beharraren eta erantzunaren bilakaera						
Arrazoa: ezkontzea – bikotekidearekin bizi (%)	28,6	21,3	22,9	27,4	25,2	23,4
Arrazoa: independentzia (%)	69,7	76,8	76,1	69,2	71,8	73,5
Beharra: handia eta nahiko handia (%)	85,0	85,5	87,8	79,5	78,0	74,5
Beharrak irauten duen denbora: < 2 urte (%)	48,6	52,1	47,3	43,9	39,9	54,4
Beharrak irauten duen denbora: > 4 urte (%)	20,7	26,1	26,1	31,8	31,2	27,0
Aukera handiak/nahikoa 4 urteren buruan lortzeko	67,4	61,6	54,9	68,2	51,6	64,6
Behar diren etxebizitzaren ezaugarriak						
Behar den batez besteko azalera (m ²)	64,1	64,3	67,8	64,1	73,6	67,3
Edukitzea-erregimena (alokairua + bata zein bestea)	24,1	33,8	32,2	39,6	40,5	48,4
Egoera ekonomiko-finantzariora						
Hileko batez besteko diru-sarrera garbiak (eurotan)	1.345	1.469	1.389	1.603	1.427	1.251
Diru-sarrera bat baino gehiago dutenen %	36,9	34,4	31,1	23,6	38,0	31,0
Hileko ordainketa-ahalmena	445	495	457	580	470	435
Ordain daitekeen gehieneko prezioa	143.215	164.455	157.920	168.072	151.813	147.221

Iturria: Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saila, Etxebizitzaren Behar eta Eskariari buruzko Inkesta 2009-2010.



3. OHIKO ETXEBIZITZA ALDATZEKO BEHARRAK

3.1. Etxebizitza aldatzeko beharren eta eskariaren kuantifikazioa

EAEko 2010eko Etxebizitzaren Behar eta Eskariari buruzko Inkestaren emaitzen arabera, euskal familien % 6,7k dute ohiko etxebizitza aldatzeko beharra: kopuru absolutuetan, 56.397 euskal familiak dute etxebizitza aldatzeko beharra.

2010eko indizea ez da aldatu 2009koarekiko (% 0,4 baino gutxiago) eta 2008ko behar-indizearen eta aztertutako aldi osoko batez bestekoaren gainetik dago (% 5,8ko batez bestekoa 1996-2010 artean).


3.1. taula Etxebizitza aldatzeko beharren eta eskariaren kuantifikazioa, EAE 2009-2010

EZAUGARRIAK	2009		2010	
	Indizea (familien %)	Familiak	Indizea (familien %)	Familiak
BEHARRA*	6,7	56.652	6,7	56.397
4 URTERA BEGIRAKO ESKARIA**	57,3	32.460	45,8	25.810
2 URTERA BEGIRAKO ESKARIA**	46,4	26.274	31,3	17.633
1 URTERA BEGIRAKO ESKARIA**	26,0	14.733	14,7	8.290

(*) %/familien guztizkoa; (**) %/beharra duten familiak.

Iturria: Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saila, Etxebizitzaren Behar eta Eskariari buruzko Inkesta 2009-2010.

3.1. grafikoa EAEko etxebizitza aldatzeko beharren indizearen bilakaera, 1996-2010



*2009tik aurrera aldatu egin da inkesta egiteko metodologia.


Iturria: Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saila, Etxebizitzaren Behar eta Eskariari buruzko Inkesta 2009-2010.



2009 eta 2010 artean aldatzeko beharraren kopuruei eutsi bazaie ere, familiek aldaketa gauzatzeko aurreikusi dituzten epeak iazkoak baino zerbait laburragoak dira. Etxebizitza aldatzeko beharra duten familien % 15ek uste dute aukera handiak edo aukera nahikoa dutela datozen 12 hilabeteetan ohiko etxebizitza aldatzeko. Eta epea 4 urtera zabalitzen bada, % 46koa da etxebizitza aldatuko dutela uste duten familien proportzioa.


Portzentaje horiek datu absolutuetara bihurtzen baditugu, argi geratzen da uzkurdira ezagutu duela urte baten buruan eta 4 urteren buruan beharrak jasoko duen erantzuna. Ohiko etxebizitza aldatzeko beharra dutela aitortu duten 56.400 familietatik 8.300ek uste dute urte batean lortuko dutela eta 25.800ek uste dute 4 urteren buruan lortuko dutela.

3.2. grafikoa EAEko etxebizitza aldatzeko beharren bilakaera, 1996-2010



*2009tik aurrera aldatu egin da inkesta egiteko metodologia.

**2005etik 2007ra arteko balioak berriro zenbatetsi dira, erabilgarri dauden familien datu berrien arabera
Iturria: Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saila, Etxebizitzaren Behar eta Eskariari buruzko Inkesta 2009-2010.



Lurralde historikoka, aldatzeko behar-indize hauek lortu dira: % 6,1 Bizkaian, % 7,7 Gipuzkoan eta % 6,9 Araban. 2009 eta 2010 artean bilakaera desberdina ezagutu da lurraldeka: Araban eta Gipuzkoan areagotu egin da etxebizitza aldatzeko beharra eta Bizkaian, aitzitik, murriztu.


Kopuru absolutuetan, Bizkaian daude etxebizitza aldatzeko beharra duten familien % 48 (27.294 familia). Gipuzkoan daude etxebizitza aldatzeko beharra duten familien % 36,5 (20.591 familia) eta Araban gainerako % 15 (8.512 familia).

3.2. taula Etxebizitza aldatzeko beharraren kuantifikazioa lurralde historikoka, 2009-2010

	2009		2010	
	Indizea (familien %)	Familiak	Indizea (familien %)	Familiak
EAE	6,7	56.652	6,7	56.397
ARABA	6,2	7.676	6,9	8.512
BIZKAIA	8,5	37.936	6,1	27.294
GIPUZKOA	4,1	11.040	7,7	20.591

Iturria: Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saila, Etxebizitzaren Behar eta Eskariari buruzko Inkesta 2009-2010.

3.3. grafikoa Etxebizitza aldatzeko beharren indizeen bilakaera lurralde historikoka 1998-2010



Iturria: Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saila, Etxebizitzaren Behar eta Eskariari buruzko Inkesta 2009-2010.



3.2. Etxebizitza aldatzeko beharra duten familien ezaugarriak

3.2.1. Bizitegi- eta gizarte-ezaugarriak

Etxebizitza aldatzeko beharrak lotura estua du behar mota hori dutela adierazi duten familien gizarte- eta bizitegi-ezaugarriekin. Horrela, jarraian Inkestaren bitartez jasotako ezaugarri garrantzitsuenak ikus daitezke.

Etxebizitza-beharra eragiten duen etxebizitzaren titularren batez besteko adina 46 urtekoa da, hau da, 2009koa baino batez besteko altuagoa.

35 eta 44 urte bitarteko familiaburua duten familiak dira gehiengo eta etxebizitza aldatzeko beharra duten familien % 34ra iritsi dira.

Titularren % 85ek nazionalitate espainola dute eta etxebizitza aldatzeko beharren % 15 nazionalitate atzerritarra duten pertsonen beharrak dira.

Familiaren batez besteko tamaina 3 kide/familia da eta batez besteko hori ez da gehiegi aldatu azken urteetan. 2010ko datuen arabera, 3 eta 4 kidek osatutako familia da tamaina ohikoena eta etxebizitza aldatzeko beharra duten familien % 48 dira.

Etxebizitza aldatzeko beharra duten familien beste ezaugarri bat seme/alabak dituzten familia nuklearren agerpen garrantzitsua da: 2010ean guztizkoaren % 54 dira.

Azkenik, etxebizitza aldatzeko beharra duten familien familiaburuen % 56 lanean ari direla azpimarratu behar da. Langabezian daude familia horien familiaburuen % 16 eta erretiratuak edo pentsiodunak dira % 15,5.

3.3. taula Etxebizitza aldatzeko beharra duten familien ezaugarri sozioekonomikoak, 2009-2010


bertikalaren %	2009	2010
Familiaburuaren adina		
24 urte arte	1,3	3,5
25-34 urte	26,2	18,0
35-44 urte	32,5	33,6
45-54 urte	20,8	22,4
55-64 urte	9,4	10,0
65 urte eta gehiago	9,7	12,5
Batez besteko adina (urteak)	43,7	45,8
Naziotasuna		
Espainola*	84,8	84,8
Atzerritarra	15,2	15,1
Familiako kide kopurua		
1 pertsona	20,4	18,1
2 pertsona	21,2	19,6
3 pertsona	20,9	24,2
4 pertsona	24,3	23,8
5 pertsona eta gehiago	13,2	14,3
Batez besteko kop. (pertsona kop.)	3,0	3,0
Familien tipologia		
Bakarrik	19,7	18,1
Ezkontidearekin/bikotekidearekin	14,5	13,0
Ezkontidearekin/bikotekidearekin eta seme/alabekin (beste senide batzuekin edo gabe)	48,7	53,7
Aita/ama seme/alabekin	8,7	8,5
Beste egoera bat	8,5	6,8
Lan-egoera		
Lanean	57,3	55,9
Langabezian	15,2	16,1
Etxeko lanak	7,9	9,9
Erretiratu/Pentsioduna	11,4	15,5
Beste hainbat	8,1	2,6

*Nazionalitate bikoitza kategoria espainolean sartu da.

Iturria: Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saila, Etxebizitzaren Behar eta Eskariari buruzko Inkesta 2009-2010.




3.4. grafikoa Etxebizitza aldatzeko beharra duten familien familiaburuaren batez besteko adina, 1997-2010



*2009tik aurrera aldatu egin da inkesta egiteko metodologia.


Iturria: Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saila, Etxebizitzaren Behar eta Eskariari buruzko Inkesta 2009-2010.

3.5. grafikoa Etxebizitza aldatzeko beharra duten familien batez besteko tamaina, 1997-2010



*2009tik aurrera aldatu egin da inkesta egiteko metodologia.

Iturria: Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saila, Etxebizitzaren Behar eta Eskariari buruzko Inkesta 2009-2010.



Etxebizitza aldatzeko beharra duten familiak bizi diren etxebizitzaren ezaugarriak dagokienez, Inkestaren bitartez lortutako emaitza garrantzitsuenak adierazi dira jarraian.

Etxebizitza aldatzeko beharra duten familiak etxebizitza nahiko txikietan bizi dira: 68 m²-ko batez besteko azalera dute, hau da, 2009an lortutako tamaina baino pixka bat handiagoak dira.

2010ean familien % 66k adierazi dute 76 m²-tik beherako etxebizitza batean bizi direla.

Etxebizitzaren antzinatasunari dagokionez, batez beste duela 41 urte eraikitako etxebizitzak dira, eta batez besteko horrek 2009an lortutakoa gainditzen du arinki (39 urte).

Etxebizitza aldatzeko beharra duten familien erdiak 10 urte edo gehiago daramatzate egungo etxebizitzan bizitzen, eta % 59ren kasuan, egungo etxebizitza da bizikidetzaren unitatearen lehenengo etxebizitza.


Gehiengo batek adierazi du babestua ez den etxebizitza batean bizi dela (% 86,5), eta ia denak eraikin kolektibo batean kokatutako etxebizitza batean bizi dira (% 99).

Azkenik, etxebizitza aldatzeko beharra duten familien artean alokairuak duen agerpen handia azpimarratu behar da. Horrela, 2010ean familien horien % 33 dira, eta batez besteko hori 2009koa (% 39) baino zerbait baxuagoa da.

3.4. taula Etxebizitza aldatzeko beharra duten familien bizitegi-ezaugarriak, 2009-2010


	2009	2010
Etxebizitzaren azalera erabilgarria		
60 m ² baino gutxiago	31,1	33,6
61-75 m ²	25,6	32,7
76-90 m ²	23,0	18,8
90 m ² baino gehiago	13,6	9,0
Ed/Ee	6,6	5,9
Batez besteko azalera (m²)	71,4	68,1
Etxebizitzaren Antzinatasuna		
60 urte baino gehiago	14,8	15,1
41-60 urte	26,0	29,6
26-40 urte	26,1	28,3
16-25 urte	3,6	4,0
6-15 urte	9,9	8,9
5 urte eta gutxiago	3,6	1,2
Ed/Ee	16,0	12,9
Batez besteko antzinatasuna (urteak)	39,0	40,6
Etxebizitzan bizitzen daramaten urteak		
2 urte eta gutxiago	11,2	15,7
3-4 urte	20,9	11,4
5-9 urte	24,0	21,3
10 urte eta gehiago	44,0	51,5
Lehen etxebizitza		
Bai	57,1	58,7
Ez	42,6	41,3
Ed/Ee	0,3	0,0
Etxebizitzaren eraikuntza		
Berria	16,1	20,3
Bigarren eskukoa	83,9	79,7
Etxebizitza babestua		
Bai	10,6	13,5
Ez	89,4	86,5
Etxebizitza mota		
Eraikin kolektiboa	96,8	98,7
Eraikin familiabakarra	3,2	1,3
Edukitze-erregimena		
Jabetzan, guztiz ordaindua	29,7	32,9
Jabetzan, ordaintzen amaitzeke	26,2	27,4
Jabetzan oinordekotza edo dohaintza bidez	2,2	2,2
Alokairuan	38,7	33,4
Beste egoeraren bat (lagapenean)	3,3	4,2

Iturria: Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saila, Etxebizitzaren Behar eta Eskariari buruzko Inkesta 2009-2010.



Halaber, asko dira ordainduta duten jabetzako etxebizitza bat edukita etxebizitza aldatzeko beharra dutela adierazi duten familiak: 2010ean etxebizitza aldatzeko beharra duten kasuen % 33 dira.


3.6. grafikoa Etxebizitza aldatzeko beharra duten familien etxebizitzen batez besteko azaleraren bilakaera, 1997-2010



*2009tik aurrera aldatu egin da inkesta egiteko metodologia.

Iturria: Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saila, Etxebizitzaren Behar eta Eskariari buruzko Inkesta 2009-2010.

3.7. grafikoa Etxebizitza aldatzeko beharra duten familien etxebizitzen batez besteko antzintasunaren bilakaera, 1997-2010




*2009tik aurrera aldatu egin da inkesta egiteko metodologia.

Iturria: Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saila, Etxebizitzaren Behar eta Eskariari buruzko Inkesta 2009-2010.



3.8. grafikoa Etxebizitza aldatzeko beharra eduki eta alokairuan bizi diren familien bilakaera, 1997-2010



*2009tik aurrera aldatu egin da inkesta egiteko metodologia.

Iturria: Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saila, Etxebizitzaren Behar eta Eskariari buruzko Inkesta 2009-2010.

3.2.2. Aldatzeko beharraren arrazoiak

Ohiko etxebizitza aldatzeko beharra eragiten duten arrazoiak dagokienez, tamaina desegokia da, oraingoan ere, arrazoi nagusia eta 2010ean etxebizitza aldatzeko beharra duten familien % 32 biltzen ditu.


Etxebizitzaren egoera kaxkarra (% 14) eta igogailurik ez edukitzea (% 13,9) ere aipatu dituzte arrazoi gisa, etxebizitza aldatzeko beharra duten familiek.

3.5. taula Etxebizitza aldatzeko beharraren arrazoiak, 2009-2010


bertikalaren %	2009	2010
Tamaina desegokia	25,0	31,9
Bizi-baldintza eskasak	7,9	14,0
Igogailurik ez	14,0	13,9
Kokapen eskasa	5,3	4,9
Jabetza nahi du	10,4	8,6
Dibortzioa, banaketa	2,2	2,9
Lanarekiko hurbiltasuna	0,8	4,0
Errenta merkeagoa nahi du	11,7	5,6
Beste hainbat arrazoi	22,5	14,2

Iturria: Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saila, Etxebizitzaren Behar eta Eskariari buruzko Inkesta 2009-2010.

Jabetzako etxebizitza bat edukitzeko gogoia ondoren agertzen da eta 2010eko familien % 8,6k aipatu dute. Proportzio hori azken urteetan murrizten ari dela esan behar da.



3.9. grafikoa Etxebizitza aldatzeko beharra eragin duten arrazoi nagusien bilakaera, 2001-2010



*2009tik aurrera aldatu egin da inkesta egiteko metodologia.

Iturria: Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saila, Etxebizitzaren Behar eta Eskariari buruzko Inkesta 2009-2010.

3.2.3. Beharraren maila subjektiboa eta eskaera-epeak

Atal honetan aldatzeko beharraren ezaugarriak zehaztu nahi dira. Ildo horretan, arreta berezia jarri da etxebizitza aldatzeko beharra duten familiek antzemandako behar subjektiboaren mailaren gainean, eta beharrak irauten duen denboraren eta beharrari erantzuteko aurreikusitako epeen gainean.

Oro har, behar handia edo nahikoa duela uste duen talde baten aurrean gaudela azpimarratu behar da. Zehazkiago, 2010ean etxebizitza aldatzeko beharra duten familien % 35ek behar handia dutela adierazi dute eta % 38k behar nahikoa dutela. Bestalde, % 20,5ek "tarteko" beharra dutela adierazi dute eta % 6k "behar-maila baxua" dutela adierazi dute.

3.6. taula Etxebizitza aldatzeko beharraren maila subjektiboa, 2009-2010

BEHAR MAILA	2009	2010
Handia	39,3	34,8
Nahikoa	36,2	38,4
Tartekoa	21,3	20,5
Gutxi	3,2	6,2
Batez besteko behar-maila	70,2	67,0

(*): % bertikala (beharra dutenen gainean).


Iturria: Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saila, Etxebizitzaren Behar eta Eskariari buruzko Inkesta 2009-2010.

Maiztasun horiek batez besteko behar-maila kalkulatzeko erabiltzean, 67 puntukoa da lortzen den batez besteko puntuazioa, 0-100 eskala batean, eta emaitza hori 2009koa baino zerbait baxuagoa da (70 puntukoa izan zen batez bestekoa 2009an).

Bilakaerari erreparatzen bazaio, azken bi inkestetan behar handia edo nahikoa dutela adierazi duten familien proportzioa, 2005etik 2007ra erregistratukoa baino baxuagoa dela ikus daiteke.



3.10. grafikoa Etxebizitza aldatzeko behar-mailaren bilakaera, 1997-2010



*2009tik aurrera aldatu egin da inkesta egiteko metodologia.

Iturria: Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saila, Etxebizitzaren Behar eta Eskariari buruzko Inkesta 2009-2010.

Beharrak irauten duen denborari edo beharraren antzintasunari dagokionez, 4 urtekoa da gehien aipatzen den epea eta 2010ean etxebizitza aldatzeko beharra duten familien % 36 biltzen ditu. Behera egin dute, azken urtean, etxebizitza aldatzeko behar berriek eta % 18k bakarrik adierazi dute beren beharra azken 12 hilabeteetan sortu dela.

3.7. taula Etxebizitza aldatzeko beharrak irauten duen denbora, 2009-2010

BEHARRAK IRAUTEN DUEN DENBORA	2009	2010
Urtebete baino gutxiago	23,4	18,4
1-2 urte	27,2	26,4
2-4 urte	17,5	19,5
4 urte baino gehiago	31,9	35,7


(*): Bertikalaren % (mota bakoitzeko beharra duten pertsonen gainean).

Iturria: Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saila, Etxebizitzaren Behar eta Eskariari buruzko Inkesta 2009-2010.

2010ean etxebizitza aldatzeko beharrak


4 urte baino gehiago irauten duen familien proportzioak iaz erregistratutakoa (% 32) gainditzen badu ere, aztertuko aldi osoaren mailarik baxuenetan dago oraindik.

3.11. grafikoa Etxebizitza aldatzeko beharrak irauten duen denboraren bilakaera, 1997-2010



*2009tik aurrera aldatu egin da inkesta egiteko metodologia.


Iturria: Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saila, Etxebizitzaren Behar eta Eskariari buruzko Inkesta 2009-2010.



Etorkizunera begira, 2010eko Inkestako datuen arabera esan daiteke, etxebizitza aldatzeko beharra duten familien % 31k uste dutela aukera handiak edo aukera dezente dituztela datozen bi urteetan beharrari erantzuteko; proportzio hori % 46koa da epea 4 urtera zabaltzen bada. Kontrako irakurketa bat egiten bada, ordea, % 69k ez dute uste aukerarik edukiko dutenik datozen 2 urteetan etxebizitza aldatzeko, eta % 54k 4 urteko epea aipatu dute.

2010eko datuen arabera, beherakada ezagutu da, 2009ko emaitzekin alderatuta, bi urteren buruan zein lau urteren buruan beharra erantzungo dutela uste duten familien proportzioari dagokionez, eta 2008an lortutako mailen parera iritsi da.

3.12. grafikoa Etxebizitza aldatzeko beharra duten familiak: eskariaren bilakaera lau urteren buruan eta bi urteren buruan, 1998-2010




*2009tik aurrera aldatu egin da inkesta egiteko metodologia.

Iturria: Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saila, Etxebizitzaren Behar eta Eskariari buruzko Inkesta 2009-2010.

Azkenik, eta datozen lau urteetan etxebizitza aldatzeko aukera handiak edo aukera dezente dutela uste duten familiak kontuan hartuta, azken urteetan etxebizitza baten bila ari direla adierazi duten familien proportzioak ezagututako beherakada azpimarratu behar da. Horrela, 2010ean % 44koa da portzentajea, hau da, aztertutako aldi osoko emaitzarik baxuena.



3.13. grafikoa Etxebizitza aldatzeko beharra edukita etxebizitza baten bila ari diren biztanleen bilakaera, 1998-2010



*2009tik aurrera aldatu egin da inkesta egiteko metodologia.

Iturria: Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saila, Etxebizitzaren Behar eta Eskariari buruzko Inkesta 2009-2010.

3.2.4. Behar diren etxebizitzaren ezaugarriak

Lehen ere adierazi den moduan, etxebizitza aldatzeko beharra eragiten duten arrazoi nagusiak familiak bizi diren etxebizitzaren ezaugarri fisikoekin daude erlazionatuta: tamaina, etxebizitzaren egoera kaxkarra edo igogailurik ez edukitzea. Horregatik, oso garrantzitsua da etxebizitza nagusia aldatzean eskuratuko diren etxebizitzek eduki beharreko ezaugarriak ondo ezagutzea.



Etxebizitza berriak eta erabiliak bereizten baditugu, 2010ean argi geratu da, berriro ere, beharra duten familiei berdin zaiela, a priori, etxebizitza berri bat ala zahar bat eskuratu. Horrela, etxebizitza aldatzeko beharra duten familien % 61ek berdin zaiela adierazi dute. Aukera zehatz bat egin den kasuetan, etxebizitza berri baten alde egin dute % 71k eta erabiliaren alde egin dute % 13k.

Etxebizitzaren azalerari dagokionez, familiek 78 m²-ko etxebizitza bat behar dutela adierazi dute, hau da, gaur egun bizi diren etxebizitzak (68 m²) baino 10 m² gehiago.

Denboraren ikuspegitik, badirudi 2008 arte behera egin ondoren, azken urteetan etxebizitza aldatzeko beharra duten familiek etxebizitza handiagoak behar dituztela.


3.8. taula Etxebizitza aldatzeko beharra duten pertsonen behar dituzten etxebizitzaren ezaugarriak, 2009-2010

EZAUGARRIAK	2009	2010
Baldintza		
Berria	24,1	16,6
Bigarren eskukoa	34,1	13,4
Berdin da	37,9	61,2
Ed/Ee	3,9	8,8
Azalera erabilgarria		
60 m ² baino gutxiago	15,1	18,8
61-75 m ²	28,5	22,3
76-90 m ²	30,6	28,5
90 m ² baino gehiago	18,3	21,8
Ed/Ee	7,4	8,6
Batez besteko azalera (m²)	77,6	78,1
EDUKITZA ERREGIMENA		
Jabetza	64,9	62,9
Alokairua	27,0	24,8
Berdin da	8,1	12,3

(*): Bertikalaren % (mota bakoitzeko beharra duten pertsonen gainean).

Iturria: Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saila, Etxebizitzaren Behar eta Eskariari buruzko Inkesta 2009-2010.


3.14. grafikoa Etxebizitza aldatzeko beharra duten familiek nahi duten batez besteko azaleraren bilakaera, 1997-2010




*2009tik aurrera aldatu egin da inkesta egiteko metodologia.

Iturria: Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saila, Etxebizitzaren Behar eta Eskariari buruzko Inkesta 2009-2010.

Etxebizitzaren edukitza-erregimenari dagokionez, jabetza da gehiengo batek egin duen aukera eta 2010ean etxebizitza aldatzeko beharra duten familien % 63k adierazi dute. Hala ere, gero eta familia gehiagok egiten dute alokairuaren aukera, edo berdin zaiela adierazten dute, eta etxebizitza aldatzeko beharra duten familien % 37ra iritsi dira.



3.15. grafikoa Alokairuko etxebizitza batera (alokairua + bat ala bestea) aldatzeko beharren bilakaera etxebizitza aldatzeko beharra duten familien artean, 1997-2010



*2009tik aurrera aldatu egin da inkesta egiteko metodologia.

Iturria: Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saila, Etxebizitzaren Behar eta Eskariari buruzko Inkesta 2009-2010.

3.3. Etxebizitza aldatzeko beharra duten familien finantza-gaitasuna

3.3.1. Sarrera-mailak

2010eko Inkestako datuen arabera, etxebizitza aldatzeko beharra duten familien diru-sarreraren maila 1.585,7 eurokoa⁷ da batez beste, hau da, 2009an erregistratukoaren antzekoa.

Familiak aitortutako diru-sarreraren tartearen arabera banatzen badira⁸ ikus daitezkeen moduan, etxebizitza aldatzeko beharra duten familien % 23,5ek hilean 2.160 euro baino gehiago irabazten dituzte, eta tarte horretan bildu da gehiengoa. Bien bitartean, % 15ek aitortu dute hilean 840 euro baino gutxiago irabazten dituztela.

3.9. taula Etxebizitza aldatzeko beharra duten familien diru-sarreraren maila, 2009-2010

Hileko sarrera garbiak*	2009	2010
840 euro bitartean	21,2	14,6
84-1.140 euro	15,9	12,9
1.141-1.410 euro	16,5	20,8
1.411-1.650 euro	10,4	13,5
1.651-2.160 euro	11,8	14,6
2.160 euro baino gehiago	24,1	23,5
Batez bestekoa (eurotan)	1.511,4	1.585,7

*Erantzun ez dutenen ehunekoa kendu ondoren kalkulatu da banaketa.


Iturria: Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saila, Etxebizitzaren Behar eta Eskariari buruzko Inkesta 2009-2010.

⁷ Diru-sarreretan etxebizitza berriaren ordainketan lagunduko duten pertsona guztiak barne hartzen dira.

⁸ Portzentajeak kalkulatzeko ez da kontuan hartu Ed/Ee aukera. 2009an erantzun guztien % 33 dira eta % 20 dira, berriz, 2010ean.



3.16. grafikoa Etxebizitza aldatzeko beharra duten familien diru-sarreraren bilakaera, 1998-2010




*2009tik aurrera aldatu egin da inkesta egiteko metodologia.

Iturria: Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saila, Etxebizitzaren Behar eta Eskariari buruzko Inkesta 2009-2010.

3.3.2. Hileko ordainketa-ahalmena eta gehienez ordain daitekeen prezioa

2010eko Inkestak erakusten duenez, etxebizitza aldatzeko beharra duten familiek hilean batez beste 485 euro ordain ditzakete, etxebizitza aldatzen badute, eta kopuru hori familia horien hileko diru-sarreraren % 31ra iristen da. Etxebizitza ordaintzeko finantza-ahalegina nahiko egonkor mantendu da azken edizioetan.


3.17. grafikoa Etxebizitza aldatzeko beharra duten familien hileko ordainketa-ahalmenaren eta finantza-ahaleginaren bilakaera, 1998-2010




*2009tik aurrera aldatu egin da inkesta egiteko metodologia.

Iturria: Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saila, Etxebizitzaren Behar eta Eskariari buruzko Inkesta 2009-2010.

Familiek gehienez ere ordain dezaketen prezioari dagokionez, etxebizitza aldatzeko beharra duten familiek gehienez ere 173.373 euro ordain ditzaketela adierazi dute, hau da, 2005etik 2009ra bitartean lortutako kantitatea baino gutxiago.



3.18. grafikoa Etxebizitza aldatzeko beharra duten familien gehienezko erosketa-prezioaren bilakaera, 1998-2010



*2009tik aurrera aldatu egin da inkesta egiteko metodologia.

Iturria: Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saila, Etxebizitzaren Behar eta Eskariari buruzko Inkesta 2009-2010.

3.3.3. Finantzaketa-formulak

Kreditua da, oraingoa ere, finantzaketa-iturri nagusia eta 2010ean etxebizitza aldatzeko beharra duten familien % 72k adierazi dute. Familien erdiak aurreko etxebizitzaren salmenta aipatu dute etorkizuneko etxebizitza finantzatzeko. Halaber, aldaketari aurre egiteko aurrezki propioak aipatu dira (% 34,5).

Amaitzeko, eskatuko den kredituarekin estali nahi den prezioaren portzentajeari dagokionez, % 20 inguruk aurreikusi dute etxebizitzaren prezioaren % 75-100 arteko kreditua eskatzea eta % 29k % 75 baino gutxiagokoa.

3.10. taula Etxebizitza aldatzeko beharra duten familiek aurreikusitako finantzaketa-formulak, 2009-2010

	2009	2010
Finantzaketa-iturriak (*)		
Kredituak	78,9	71,7
Aurrezki propioak	48,8	34,5
Familiaren laguntza	11,7	8,9
Aurreko etxebizitzaren salmenta	50,8	50,3
Beste ondare baten salmenta	3,2	4,1
Alokairua eta aurreko etxebizitza	7,2	4,1
Laguntza publikoak (diru-laguntzak, kreditu bigunak eta abar)	34,5	14,8
Beste bide bat	10,9	4,6
% kreditua/prezioa (**)		
% 0 (ez du krediturik eskatu)	21,1	28,3
1%- 25%	2,8	8,0
% 25-% 49	11,7	11,3
% 50-% 74	9,4	9,9
% 75-% 100	22,8	19,8
Ed/Ee	32,2	22,7

(*): % erantzun anitzak.

(**): % bertikala, beharra dutenen gainean.

Iturria: Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saila, Etxebizitzaren Behar eta Eskariari buruzko Inkesta 2009-2010.

3.4. Etxebizitza aldatzeko beharraren adierazle nagusien laburpena eta ondorioak

EAEko 2010eko Etxebizitzaren Behar eta Eskariari buruzko Inkestaren emaitzen arabera, euskal familien % 6,7k dute ohiko etxebizitza aldatzeko beharra: kopuru absolutuetan, 56.397 euskal familiak dute etxebizitza aldatzeko beharra.

2010eko inkestatik emaitza hauek azpimarratu behar dira, etxebizitza aldatzeko beharra duten familien inguruan:

- 2009rekin alderatuz, mantendu egin da etxebizitza aldatzeko beharra, baina behera egin du, ordea, urte batean eta 4 urteren buruan aldatzeko eskariak.
- Etxebizitza aldatzeko behar-maila altuagoa erregistratu da Gipuzkoan (% 7,7), eta baxuagoa izan da Araban (% 6,9) eta Bizkaian (% 6,1).
- Etxebizitza aldatzeko beharra duten familien buruen profilari dagokionez, batez beste 46 urteko pertsona bat da, nazionalitate espainola du, 3 kidek osatutako familia bat du eta batez beste 68 m² dituen eta 41 urteko antzinatasuna duen etxebizitza batean bizi da. % 62,5 beren jabetzako etxebizitza batean bizi dira eta % 33 alokairuko batean.
- Etxebizitza aldatzeko beharraren arrazoiari dagokionez, tamaina desegokia da erantzun nagusia eta etxebizitza aldatzeko beharra duten familien % 32k aipatu dute. Etxebizitzaren egoera kaxkarra, igogailurik ez edukitzea edo jabetzako etxebizitza bat nahi izatea ere aipatu dira arrazoi gisa, baina gutxiagotan izan da.
- Familien gehiengoak uste du ohiko etxebizitza aldatzeko beharra duela, nahiz eta beharraren intentsitatea ez den hain nabaria, aurreko aldietakoarekin alderatuta.
- 2009rekin alderatuz, behera egin du 2 eta 4 urteren buruan ohiko etxebizitza aldatuko dutela uste duten familien proportzioak eta murriztu egin da, halaber, etxebizitza aldatzeko beste etxebizitza baten bila ari diren familien kopurua.
- Behar diren etxebizitzaren ezaugarriari dagokienez, 78 m²-ko etxebizitza bat behar dutela adierazi dute familiek, hau da, gaur egun bizi diren etxebizitza baino 10 m² gehiago. Gehiengo batek bere jabetzako etxebizitza bat nahi du (% 63). Hala ere, gero eta familia gehiagok hartzen dute kontuan alokairua.
- Etxebizitza aldatzeko beharra duten familien diru-sarreraren maila 1.586 eurokoa da eta hilean 485 euro bidera ditzakete alokairua ordaintzera, hau da, % 31koa izango litzateke finantza-ahalegina eta emaitza hori aurreko urteetan lortutakoaren parekoa da.
- Hala ere, etxebizitza erosteko aurreikusitako gehienezko prezioa 173.373 eurokoa da batez beste, hau da, 2007koa baino dezente baxuagoa (229.085 euro). Behera egin du etxebizitzaren erosketa finantzatzeko kreditu bat eskatuko duten edo aurrezki propioak erabiliko dituzten familien proportzioak.

Amaitzeko, 2005-2010 aldian EAEn etxebizitza nagusia aldatzeko duten beharrari buruzko adierazle kuantitatibo eta deskribatzaile garrantzitsuenen laburpen-taula bat osatu da.



3.11. taula Etxebizitza aldatzeko beharra duten familien ezaugarri nagusien bilakaera, 2005-2010

	2005	2006	2007	2008	2009	2010
Kuantifikazioa						
Beharraren indizea (familien %)	6,4	6,1	8,1	4,9	6,7	6,7
Beharraren kuantifikazioa (familia kop.)	49.559	47.851	64.393	40.894	56.652	56.397
Gizarte- eta bizitegi-ezaugarrien bilakaera						
Familiaburuaren adina (urteak)	46,1	46,2	48,3	48,6	43,7	45,8
Batez besteko tamaina (famiako kide kopurua)	3,2	3,1	3,1	2,8	3,0	3,0
Etxebizitzaren batez besteko azalera (m2)	69,0	66,4	71,4	67,9	71,4	68,1
Etxebizitzaren batez besteko antzintasuna (urteak)	36,2	41,7	39,4	39,0	39,0	40,6
Alokairu-erregimenaren %	26,6	32,8	23,0	36,6	38,7	33,4
Aldatzeko beharraren bilakaera						
Arrazoia: tamaina eta egoera kaxkarra (%)	39,5	44,7	37,0	46,6	32,9	45,9
Arrazoia: Jabetza nahiago (%)	13,6	9,1	8,4	15,4	10,4	8,6
Beharra: handia eta nahiko handia (%)	84,2	83,4	82,9	73,0	75,5	73,2
Beharrak irauten duen denbora: > 4 urte (%)	50,4	48,5	43,1	52,5	31,9	35,7
Aukera handiak/nahikoa 4 urteren buruan lortzeko	48,9	40,6	47,7	48,1	57,3	45,8
Nahi diren etxebizitzaren ezaugarriak						
Nahi den batez besteko azalera (m2)	76,4	74,4	74,8	71,3	77,6	78,1
Edukizta-erregimena (alokairua + bata zein bestea)	17,1	26,6	24,7	36,5	35,1	37,1
Egoera ekonomiko-finantzarioa						
Batez besteko diru-sarrerak	1.514	1.609	1.618	1.625	1.511,4	1.585,7
Hileko ordainketa-ahalmena	416	471	477	522	470	485
Ordain daitekeen gehieneko prezioa	195.900	209.220	229.085	214.369	186.938	173.373

Iturria: Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saila, Etxebizitzaren Behar eta Eskariari buruzko Inkesta 2009-2010.